

10. KULTURA

AZTERTZEKO ARLOA

Kultur ekimenak eta produktuak zein hizkuntzatan gozaten ditugun hausnartzea da atal honen helburua.

Euskaldunak izan arren, zein hizkuntza hautatzen dugun liburuak irakurtzeko, filmak edo antzezlanak ikusteko, musika entzuteko, hitzaldietarako eta antzekoentarako.



ISPILUARI BEGIRA

KULTUR KONTSUMOA: LIBURUAK, FILMAK, MUSIKA, ANTZERKIA, HITZALDIAK...

Kultur ekoizpenei dagokienez, zein hizkuntza hautatzen dugun aztertu nahi dugu. Zergatik egiten dugun egiten dugun hautua, euskaraz aritzen garen, ala errazago jotzen dugun beste hizkuntza batzuetatik heltzen zizkigunetara.

GALDERAK:

- > Ezagutzen al dugu gaur egungo euskal sorkuntza?
- > Euskarazko musika entzuten al dut?
- > Zinema, euskaraz ikusten al dut normalean? Urtean zehar ikusten ditudan filmen ehuneko zenbat da gutxi gorabehera euskaraz?
- > Zergatik ez dut euskarazko film gehiago ikusten? Eskaintza faltagatik, ala erdaretara jotzeko ohituragatik?
- > Euskarazko liburuak irakurtzen al ditut oro har? Beste hizkuntzetara jotzen baldin badut irakurtzerakoan, ez da eskaintza faltagatik. Zergatik da orduan?
- > Antzerkira joateko ohiturarik baldin badut, euskarazko antzezlanak ikusten al ditut normalean?
- > Bertsozalea al zara? Ba al duzu ohiturarik zure herrian edota zure herritik kanpo antolatzen diren bertso saioetara joateko?
- > Telebistan zein irratan askotarikoak dira kulturarekin lotutako saioak (telebista edo irrati kate batzuetan besteetan baino gehiago, argi dago). Ba al duzu saio horiek ikusteko eta entzuteko ohiturarik? Ikusten edo entzuten badituzu, oro har zein hizkuntzatakoak hautatzen dituzu?



ERAGIN BURUARI

LIBURUAK

- Zein da irakurri duzun euskarazko azken liburua?
- Ezagutzen al dituzu gaur egungo euskal idazleak?
- Zure herrian ba al da euskal idazlerik? Irakurri al duzu bere liburu-rik?

Zinema

- Euskarazko filmak non ikusten dituzu oro har? Zineman, telebistan ala internet bidez eskuratuta?
- Ezagutzen al duzu euskarazko azpigituluak eskaintzen dituen *azpigituluak.com* webgunea edo antzekoren bat?

Musika

- Zein da erosi duzun euskarazko azken diskoa?
- Zure herrian izaten al da euskarazko musika zuzenean antzuteko aukerarik?

Antzerkia

- Ba al duzu euskarazko antzezlanak ikusteko ohiturarik? Herrian bertan izaten duzu aukera, ala kanpora joan behar izaten duzu?

Bertsolaritza

- Gustukoa al duzu bertsolaritza? Bertso saioetara joateko ohitura ba al duzue? Herrian bertan izaten al duzu bertso saioak entzuteko aukerarik? Telebistan ala interneten jarraitzen al dituzu saioak?

ALORRA:**KULTURA****Helburua:**

Maila pertsonalean zein kolektiboan kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen dugun hausnartzea, eta ahal bada hizkuntza ohiturak aldatzea, euskarazko ekoizpenak gailendu daitezten.

Aztergaiak:

Liburuak, filmak, diskoak eta kontzertuak, hitzaldiak...

Eremua: etxea, zinema, kultur etxeak eta areto publikoak...

Ardura:

Pertsonala zein erakunde publikoena.

Urratsak:

- Euskarazko kultur eskaintza ezagutzeko ahaldundu herritarrek.
- Hainbat udalek eta euskara elkartek egin izan duten moduan, herriko musika taldeak, herriko musika taldeen historia, herriko idazleak, bertsolariak eta herriko sortzaileak ezagutzeko ekimenak, webguneak, liburuak eta antzekoak sortu, lagundu, zabaldu.



I+D
IDEIAK

- Herriko sortzaileen lana ezagutarazteko ekimenak antolatu: disko edo liburu berriren bat aurkezten dutenean, herritarren aurrean ere aurkezteko aukera eman.

- Herriko sortzaileen lana ikusarazteko askotariko ekimenak egin daitezke: txikitik handira, errazenetik zailenera. Herriko taldeen kontzertua, herriko idazleen liburu aurkezpenak, herriko sortzaileak eskoletara eraman hitz egitera, sari banaketetan herriko sortzaileen ekoizpenak banatu sari gisara, webguneak sortu, herriko kultur eskaintzan edo jaietan herriko taldeak eta sortzaileak lehenetsi...

- Euskarazko musika gailendu dadin kanpaina egin herriko tabernen artean. Gutuna bidali, CDren bat prestatu eta tabernetan banatu...
